

- **Entzutekuak:** Jauregi pelotariari elkarrizketa
- **Zer berri:** AHTaren kontrako herri mobilizazioak

soraluzeko
hamabostekaria **192.** alea
2009ko urtarrilaren 30ean

Pila-Pilean



**Udalak 2009rako
aurrekontuak
aurkeztu ditu**

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)

**Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022**



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com





MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Tel.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak


Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzeta

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

**AITOR MORILLO****ENARA AGIRRE**

ATERTU HADI BEHINGOZ

Kaixo Enara!
 Jolas antzeko bat proposatzen dotsut oinguan: itxi begixak eta egin atzera denboran... pixkat gehixago... hortxe, ondo! Zabaldu begixak eta begiratu ingurura. Soraluzen zare, eskolako atarixan. Emaizu buelta bat bertatik. Zer ikusten dozu? Gauza berri askorik ez ezta? Gela ugari, umiak nonahi, irakasliak... sarzaittez gela horretako baten eta erreparatu irakasliak darabilen hizkuntziari. Erdera hutsian dihardu. Orain begiratu ezkerreko horman dagan egutegixari. 2012-xa bai! Denboran atzera egin biharrian aurreraka jo dogu Enara eta egoera Frankismo garaikuan berdin berdina, hau da, dana erdara hutsian eta gutxiengo hizkuntzak guztiz zapalduak! Zer dala eta etorkizun hain beltza euskararentzat? Utz deigun denbora makinia eta bueltatu gaittezen errealitatera.

Duela aste bete email bat jaso neban non demokrazian izenian diharduten zenbait pertsonaiek sinatutako manifestu baten berri ematen zan. Dirudienez “pentsalari” honek, erderan egoeraz kezkatuta, espainiar estatuko hizkuntza ofizial bakarria gaztelania izatia nahi dabe. Bultzatzaile nagusixena Savater bera da, tira, bera bakarrik balitz gaitzerdi, ziharo ohittuta baikare bere mozolokerixetara, baina zerrenda luzia da, idazle, kazetari, telebista kate bat be. Beldur naiz ez ete daben ondorio latzik izango.

Ba hori Enara! Aurrera egin biharrian karramarruak bezela atzera! Zer irizten dotsazu?... Telebista kate hori zein dan?... uhm... ez dakit nik oso etikua dan izenak esatia...

BOIKOTA TELECINCORI!

zeinek esan dau hori? Jeje. ☺

“

Boikota telecincori!

Aitor Morillo

Eizue euskeraz bildurrik bare!

Enara Agirre

”

Aupa Aitorchu!
 Policha jolasa, bai; baina eguna alai-chu biharrian ez daquit ba ez jatan ilundu. Zorionez behintzat zuc denboran mobidu biharra euqui dozu hori icusteco, zorionecua zu! Nic aspaldixan gero eta gertuago icusten dot, eta eusqueria, gure eusquera maittia eta bihoztzecua gero eta bazartuago. Jaquin badaquizu eta hitzez ez bada be, gu beti eusquerian alde garela (*gero zelan berba eingo dogun hori ia beste asunto bat da*).

Aitorchu maittia, nic oin jolasquin jarraitzeko beste probacho bat proposatuco dotsut: edozein astegunetaco arratsalde baten joan zaitte bueltacho bat emotera frontoi, estazioco parque edo Plaza Zahar aldera; gure herrico ume eta gaztechuec euren ordu libre apurrac pasatzen dittuen toquixac. Joan eta begiratu adi eta entzun, entzun ondo zertaz eta zelan diharduen... igarri dozu ezta? Bai bai, Telecincinco 1 Ikastolia 0. Gure ume eta gaztecho gehixenec ez dabe ez manifestu hortaz ezta Savater jaun chit gorenaz gauza ascoric entzun; baina bistan danez manifestuan defendachaile bihurtzen dabizela. Zergaittik jarduten dabe egun osuan jo eta sua erdaraz? Telecincinco programaziua hobia da ala? ETB mesedez hobetu zuen programazio eta saiuac, hil ala bizicuac zarete eta!

Barkatu irakurle maittiok oinguan erabilttako euskera traketsagaittik, baina martxa honetan ia berriro be holan idaztera bueltatuko gara. Amaittu aurretik eskari txiki bat gure eta Pil-Pileaneko danen partez.

EIZUE EUSKERAZ BILDURRIK BARE!

☺

Goguan hartzeko

Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenak ikasten ez dutelako, dakitenak hitzegiten ez dutelako baizik.

J. Artze. Euskal olerkaria



GUTUNAK

**2009ko
aurrekontuari
eginiko
emendakina**

2009ko aurrekontua aztertzen gabiltzan honetan Soralezeko EAJ/PNV Udal taldeak ondorengo emendakinak aurkeztu ditu udal gobernuak proposaturiko 2009ko aurrekontuari dagokionean:

1- Erregetxeko lur azpiaren salmenta burutu aparkalekuak egiteko. Salmenta honetatik lorturiko diru kopuruarekin (**300.000 €**) udalerrian Eguneko Zentrua egiteko proiektua martxan jarri.

2- Kiroldegiko gaina amaitzeko (**60.000 €**) partida bat zehaztu. Gaztelekua, kafetegia eta umeentzako jolasak ipintzeko

3- Plaza Zaharraren urbanizazioa exekutatzeko **250.000 €** tako partida bat zehaztu.

4- Zubi nagusiko kumun publikoak berriztatze-ko **36.000 €** tako partida bat zehaztu.

5- Frontoiko 5 zenb. Udalaren jabetzakoak diren etxebizitzak alokairu sozialera atera (*Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena gauzatu 2009ko urtean*).

6- Agarrebeztei - Osuma bitartean biondak jartzea eta bidearen konponketa burutzeko **10.000 €** tako partida bat zehaztea

Besterik gabe Udal Gobernuak aintzat hartuko dituenaren zain gelditzen gara, gure helburua aurrekontua osatzea eta aberastea da eta, Soralezeko eta soralezetarren mesederako.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

**PSEren tonuz
kanpoko
adierazpenei**

Soraluzeko PSEk DVri egindako adierazpenak arretaz irakurri ostean, zehaztasun batzuk egin nahi gizenizkioke, tonuz kanpoak iruditu zaizkigun baiez tapen batzuei:

Zuen idatzian diozue, Espainiako Gobernuak emango dituen laguntzak *“hito histórico”, “extraordinario” eta “sin precedentes”* direla. Gogorazi nahi dizuegu, diru horiek herritarrok ordaindu ditugula zerga bitartez.

Soraluzeko Udal gobernuaren jokaera *“sarcástico”* moduan izendatzen duzue, Espainiar Gobernuaren diru laguntzak onartu ditugulako. Ba begira. Euskaldunak eta independentistak gara, bai. Uste dugu Espainiar Gobernuak joku antidemokratikoa erabiltzen duela gure ideien kontra egiteko. Horren aurrean, dagozkigun diruak gure herria aurrera ateratzeko erabiliko ditugu, geureak direlako. Non dago sarkasmoa hor?

Espainiako Gobernuari aurkeztu dizkiogun proiektuak, *“muy interesantes” eta “vitales”* moduan izendatzen dituzue. Bejondeizuela. Hain zuzen ere horrexegatik proposatu genituen 2008ko aurrekontuetan ere, baina zuek PP eta PNVrekin batera atzera bota zenituzten, lehen aldiz. Hori bai izan zela *“histórico”*.

Euskararen inguruko kontuei dagokienez; *“fundamentalismo lingüístico”, “sustituir”, “sumar”, “inponer”, “decreto”*... moduko hitzak dabilzkizu. Hitz potolo asko, azkenean, bizitza publikoan euskara hutsean ezer ateratzea ez zaizuela zilegi iruditzen esateko. Zuen logikaren arabera, espainiera da batzen gaituen benetako hizkuntza, eta beraz, euskara hizkuntza osagarri bat da hemen, 2. hizkuntza, zaindu, maitatu eta gorde behar

dena noski, baina hori bai, kontuz bizitza publikoan euskara hutsean ezer ateratzearekin (*errotulu bat ere ez*).

Ba begira, guri ez eskatu euskara geure herrian 2. mailako hizkuntzat hartzerik. Zergatik iruditzen zaizue *“fundamentalista”* –kopeta behar da gero- errotulu koxkor baten, herriko aldizkarian, ikastetxeko patioan edo Udal batzarrean euskara hutsez egitea? Ez dugu ulertzen zergatik gizarte moduan herritarrek etorkizunean euskaraz bizi izateko apostu garbia egiten dutenean, euskara 2. hizkuntza izatera kondenatzeko era honetako adierazpenak egiten jarraitzen duzun.

Azkenik esan nahi dugu, begibistakoa dela Patricia Borinagak egindako adierazpen hauek PSE-PSOEK hauteskundeetara begira hasi duen *“superkanpainaren”* testuinguruan ulertu behar direla. Gaitzerdi horrela bada.

Udal Gobernu Taldea

PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:

Elkarteko kontuetarako: **koordinazioa@pilpilean.com**
Aldizkariko kontuetarako: **aldizkaria@pilpilean.com**
Publizitate kontuetarako: **publizitatea@pilpilean.com**

eta **ORDUTEGIA**

Astelehenetik - Barixakura 10:00 - 13:30
Martitzen eta Eguenetan 17:00 - 20:00

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Frontoi kalea 5. behea, PK 27 - 20590 Soralezu, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzardea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Aritz Arizaga

Hain zaila da?

Oin dala egun gutxi herriko argibide-kartelen inguruko eztabaidia piztu zan. Erderaz idatzitta daguazanak borratuta agertzen diralako. Eta ez erdera hutsian daguazanak bakarrik, euskeraz eta erderaz daguazan karteletan be ikusten dira ezabaketak. Honek, herrixari zikin itxuri emoten dotsa batzuen ustez. Bestiek oster, euskeraren defentsan eitten dabe. Euskeriak eztau egoera erreza bizi, baina zer irabazten dau euskeriak holako ezabaketekin? Nere uste apalian ezer ez. Erderiari inposatzaile itxuria emoten jako, garai batian hala zalako. Baina ze irudi ipintzen jako euskaldunari, kaleko señaletan beste hizkuntza hori kendu ezkerio? Bestian inposatzaile kutsu berdina. Nik uste errespetua mantendu bihar dogula, eta euskera eztaixan jendia be badaguala pentsatu. Kartelak erdera hutsian ezin dittugu onartu, gure hizkuntza eskubidien kontra doialako. Eta hau aldrebes pasatzen danian? Erdaldunen eskubidiak be errespetatu biharko dira, guriak errespetatzia nahi dittugun moduan. Konponbidia: kartel guztiak euskeraz eta erderaz jartzia. Euskeria beti be aurrian dala. Bi hizkuntzotan antzerako diran hitzetan, (*centro eta zentrua adibidez*), ba euskerazkua bakarrik ipini, eta listo.

((ENTZUTEKUAK))

Iñaki Jauregik San Anton pilota txapelketako jokalaria onenan sarixa jaso berri dau.

Pelotaririk onenan sarixa jaso dozu. Zer sentitzen da?

Urte guztiko entrenamenduan sarixa jaso dot modu honetan. Ordain-sari baten antzeko zer-baitx. Izan be, astian bitan edo entrenatzen dot eta Eibarrera edo Donostira juan bihar izaten gara eta ez da erreza.

Zein izan da etsairik gogorrena?

Neretzat ni neu naiz etsairik gogorrena. Nere burua da azken finian nik dakaten etsairik gogorrena. Baina orokorrian, jokatzen doten jende guztia ikusten dot etsai moduan baina ezin dot bat konkretua esan, gogorrek asko dauz eta!

Eta jokatutako partidurik onena?

Aukeran, giro aldetik herri arteko txapelketa esango neban. Hemen, herrixakin jolasten da eta Donostin oso giro ona egon zan. Bestela, serixuago, Diario Vasco txapelketia aittatuko neban, finala irabazi nebanian.

Zeintzuk dira "atzelari perfektu" batek kantxan izan biharko zittuan ezaugarriak?

Neretzat atzelari ona izateko burua hotza eta pazientzia asko izan bihar da.

Aipatu zure dohain bat...

Kolpia izango dala esaten dau jendiak... ze ez naiz ez oso konstantia.



*Atzelari
ona izateko
burua hotz
eta pazientzia
asko bihar
da*

Zer eman dizu eta zer kendu pelotak?

Kendu esan leiket denboria kendu deztala eta eman dana. Txikitatik nabil pelotan jolasten eta nire bizi-modua honen arabera egin dotela esan ahal dot. Pelotak atzian dakan mundua be asko gustatzen jata.

Gaurko esku-pilotaritzari zer etorkizun ikusten dotsazu?

Ointxe momentuan etorkizun haundixa ikusten dotsat esku-pilotaritzari. Gazte jende asko animatzen dabil pelotan jolastera eta hau oso ona da. Prentsak eta telebistak be gero eta jarraipen haundixagua itten dabil kirol honen inguruan eta momentuz hazten doiala uste dot.



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

Belarrak
Loradenda eta belardenda

San Balentin egunerako
eskaerak telefonoz
ere jasotzen ditugu!!!

T. 943 75 30 11

Zaharren Egoitzako langileen mobilizazioa



Hilaren 27an egin zuten enkartelada

Adegi eta Lares patronalek, Adinekoen egoitzetako negoziaketan kontutan hartzeko proposamenik egiten ez dutela eta, Gipuzkoako egoitzetako langileek mobilizatzeraz deitu ditu ELA sindikatuak. Soralezeko egoitzako langileek ere bat egin dute deialdiarekin eta elkarretaratzea egin zuten negoziazio eza, salatzeke.

Patronalaren hitzetan, *sektorea ez dago prekaritatean eta*

ez dute duintzeko beharrik ikusten”.

Langileen eskaera

ELAko arduradunek adierazi dutenez, ondorengo edukiei ematen diete eurek lehentasuna negoziaketetan: oinarritzko soldata, subrogazioa, bajak, benetako lanaldia (*20 minutuko atsedena eta APak*), jai egun eta igandeetako plusa eta urteko lan egutegia.



D3M plataformaren aldeko mobilizazioa



Pasa den barixakuan, hilak 23, D3M plataformako 8 kide atxilotu zituen polizia nazionalak eta hilaren 26an hauek kartzelan sartzeko agindua eman zuen Baltasar Garzon epailliak. D3M plataformaren aldeko hitza zabaldu zuten hilaren 24an, zapatua, 30 bat herritarrek arratsaldeko 19:30ean egin zen manifestazioan.

Gaur Kalebarren itxiko dute

Gaur barixakua, arratsaldeko 20:30etatik astelehenera bitartean lanak direla eta Kalebarren kalea itxita egongo da.

Otsailak 13 Torturaren aurkako Nazioarteko eguna

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Torturaren aurkako Nazioarteko egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu:

Otsailak 6, barixakua:

20,30ean prentsaurreko herrikoia Plaza Berrian.

Gaiak:

- Balantze errepresiboa
- Torturaren aurka aritzearen beharra

Otsailak 11, asteazkena:

19,00etan hitzaldia Udaletxeko Pleno Aretoan

-Bideo emanaldia

-Torturaren Aurkako Taldearen abokatua mintzatuko zaigu

Otsailak 13, barixakua:

20,00etan mobilizazioa Plaza Berritik "Stop Tortura"

Haize bolada indartsuen ondorioz ezer larririk ez

Asteburuko haize bolada indartsuek ez dute kalte larririk sortu baina euriteak putzuak eragin ditu herriaren sarrean. Udaltzainen esanetan, Bidegorria eta Estazio Kalea izan dira haizearen indarra gehien pairatu duten guneak, bertako zuhaitz batzuk lurrera erori dira eta.



argitek
ELECTRICIDAD • ELETRIZITATEA

David Rascón
607 486 428

Instalaciones y reformas eléctricas en vivienda e industria

Instalazio eta erreforma elektrikoak etxebizitza eta enpreseetan

Baltegieta, 17 • 20590 SORALUZE



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



Bi atxilotu eta lau zauritu izan dira AHTaren kontrako azken protestetan

Urtarrilaren 23an egindako manifestazioa

Otsailean IT txartela ateratzeko azterketak KZgunean

Otsailetik aurrera IT txartela eskuratzeko azterketak egin ahal izango dira KZgunean. Txartel honek, oposaketetan puntuak lortzen laguntzen du.

Egunak:	Ordutegia
Otsailak 3, asteartea	11:00etan
Otsailak 5, osteguna	11:00etan
Otsailak 10, asteartea	11:00etan
Otsailak 18, asteazkena	11:00etan
Otsailak 23, astelehena	09:00etan

KZguneko otsaileko ordutegia:
Astelehenetik barixakura, 9:00etatik 13:00etara

Pil-pilean Euskara Elkarteko Batzar Nagusia



Noiz? Otsailaren 14an, zapatua

Non? AEK-ko lokalean

Ordua: Goizeko 11:00etan

Antolatzaileek Pil-pileaneko bazkide guztiak gonbidatu nahi dituzte.

Misioetako errifaren zozketa berriz egin da

Saridun zenbakia saldu ez zelako berriz egin dute zozketa. Zenbaki berria, 2523 da eta saria, kiroldegiko abonua familiarra izateko aukera. Errifekin jasotako dirua Haitiko uholdeek sortutako ezbeharrak konpontzen laguntzeko izango da.



Urtarrilaren 14an Zornotzako Udaletxean lurren desjabetzeen aktak sinatzeko hitzordua zegoela eta hainbat herritar bildu ziren bertan protesta egiteko asmoz. Ertzainek lau lagun atxilotu zituzten, hauetako bi soraluzetarrak. Egun berdinean kalean aske utzi zituzten baina epaiketa izango dute.

Urbina ere 4 zauritu

Urtarrilaren 17an, larunbata, Abiadura Haundiko Trenaren kontrako manifestazioak milaka lagun bildu zituen Urbina. Martxa lasaia izan bazen ere, azken momentuan tentsio uneak bizi izan ziren eta 30 zauritu baino gehiago eta 8 lagun atxilotu zituen Ertzaintzak. Zaurituen artean, 4 herritar daude. 23 urteko



herritar bati pilotakada batez, sudurra hautsi zioten esaterako. Guzti hau salatzeko, hilaren 23an manifestazioa egin zen herrian, Plaza Berritik hasita eta pankartan zioazen bi herritar ere identifikatu zituen ertzaintzak, multa iritsiko zaiela mehatxatuz. ☺

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21 20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Hnos. BENITO ANAIAK 
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe
T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK ETA PINTXO GOXO GOXUAK 
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Aras
DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako tornilluak
T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95
Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

INOIZ BAINO BERBALAGUN GEHIAGO



Aurten inoiz baino jende gehiago bildu da Berbalagunera. Dagoeneko 12 soraluzetar inguru daude taldean. Batzuek ondo dakite euskaraz, eta besteak ikasteko gogoz daude. Hemendik aurrera, astero bilduko dira, kafetxo bat hartuz edo paseo bat emanez euskaraz egiteko. Merkea da (doan) eta denbora modu atseginean pasatzeko aukera ematen du. Oraindik ere badago jende gehiagorendako lekua parte hartu nahi izanez gero, beraz, hurbildu Pil-pilean edo Berbalagunengana eta egin zaituz Berbalagun zeu ere. ☺

Euskararendako argindarra

Gero eta gehiago dira euskarari argia eta indarra ematen dioten enpresak. Errotuluetatik hasita eguneroko lanean euskara erabiltzeko helburua zabaltzen eta indartzen ari da poliki poliki. Aurrera ba!



Euskarari hegoak moztu nahian

Soraluzeko PSEk ateratako idatzian oso kritika gogorra egiten zaio, errotuluetan, aldizkarian edo jolastokian euskara hutsez jarduteko ahaleginari. Nola esan liteke euskarak inoiz ezagutu gabeko eremuetara iristeko laguntza jasotzen duela? Hori ez da egia, euskarak ezagutu ditu orain baino garai hobeak eta guri ez zaigu ahaztu zergatik galdu zituen.

Del Bosque ha defendido que el euskera requiera de apoyo institucional para acceder a espacios y funciones que nunca antes conoció. «*Ahora bien, no debemos confundir fundamentalismo lingüístico con promoción del euskera; una verdadera política lingüística no trata de sustituir el castellano en revistas locales, plenos municipales, señalizaciones de tráfico, publicaciones, aulas o patios de recreo, sino de sumar el euskera a la vida social*», afirma del Bosque. A su juicio, «*el amor a un idioma no se impone nunca por decreto*».

ZER EGIN?

Lantegian euskara plana martxan jarri

“Lantegietan euskara planak martxan jartzeko laguntza haundixak dare”

Antzuolako Elay enpresa izan zen Euskal Herrian euskara plana martxan jarri zuen lehenengo enpresa. Dagoeneko Euskal Herriko ehundaka enpresa dira euren lanean euskararen erabilera handitzeko plana martxan jarrita daukatenak. Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza handiak ematen dizkie enpresetan euskara planak martxan jarri nahi dituzten enpresei. Eskatu informazioa Udaleko Euskara zerbitzuan eta sartu euskara zure lanean.



Zulotik
begira

www.tuenti.com. Zer da?

Aitor, Usher eta Ane Po

Ikasleen webgune bat da eta gaur egun oso modan dago. Web honetan, ikasleak, beste ikasle batzuk ezagutu ahal dute, baina herrialde berdinekoak. Interneteko webgunetan ikasle edo pertsona bakoitzak argazkiak, bideoak eta horrelakoak igo ahal dituzte. Gure gelan ia denok dugu tuenti-a eta egunero sartzen gara komentarioak ditugun ikusteko eta lagunak ze argazki berri igo duten ikusteko.

Uxue eta Leire

Tuenti.com webgunean argazkiak, bideoak, etab. igo daitezke eta argazkien komentarioak lauki baten barruan jarri ere. Horrela, lehen ez zenituen argazkiak eduki ditzakezu, beste batzueri hartuta. Tabloi bat dago, zure laguneri komentatzeko, eta herri askotako jendea ezagutzeko. Bestalde, urrutiko lagunekin komunikatu ahal zara. Eta jendearekin mezu pribatuak bidali.

Elene, Nerea eta Miren

Tuentia web orrialde bat da, pribatua, bakoitzak bere argazkiak edo lagunena igozteko. Azkenaldi honetan oso modan jarri da gazteon artean, guztiok edo ia guztiok daukagu. Sorraluzeko gazteok egunero erabiltzen dugu koadrilakoekin eta kanpoko lagunekin hitz egiteko. Fotologaren lehiakide gogorra da eta fotologa ordezkatzan ari da. Aldea da: fotologean eguneko argazki bat soilik igo dezakezu eta ezin da ezer gehiago igo eta bestean, berriz, nahi dituzun argazki guztiak igo ditzakezu eta baita bideoak ere. Oso asmakizun ona iruditzen zaigu eta denbora-pasa bikaina da!

Iratxe eta Sheila

Tuenti.com-en norberak idatzitako komentarioa edo igotako argazkiak agregatuta duzun lagunari ere agertzen zaio, horrela zure lagun guztiak zure argazkiak komentatu ditzakete.

Soraluze BHiko ikasle gehienak, tuentia daukate. Eta baita zentrokoak ez direnak.





Herritarrak
aurrekontuen
aurkezpenean

2007an baino %23,38 handiagoa izango da aurten Udalaren aurrekontua

Oraindik onartu ez bada ere, Udal gobernu taldeak aurkeztu du 2009ko Udal aurrekontuaren proposamena. Horretarako eta herritarren ekarpenak jasotzeko bi bilera antolatu zituen. 50 herritar inguru batu ziren proposamena entzutera.

Aurkeztutakoaren arabera, aurten **6. 203. 591** euro gestionatuko ditu Udalak, 2007an baino **%23,38** gehiago. Krisiaren eragina leuntzeko gastu sozialak bermatuko direla eta inbertsioak herritarren beharrei erantzunez egingo direla ere


esan dute. Modu honetan, inbertsioetan **2. 183. 481** euro inbertituko da, gastu arruntetan **4. 020. 110** euro eta **400.000** eurokoa izango da Udalak eskatu nahi duen mailegu berria.


Asmo eta inbertsio nagusiak:

2009. URTERAKO

FUTBOL ZELAIA:	800. 000 euro (erdia diputazioaren dirulaguntzarekin egingo da)
EGUNEKO EGOITZA:	30. 000 euro (aurten proiektua prestatu nahi da)
APARKALEKUAK:	(Sahiesbidean 140 egin nahi dira)
IGOGAILUAK:	Zeletan: 246. 396 euro Plaza Zaharrean: 198. 070 euro
GAZTE TXOKOA:	45. 608 euro (merkatu gaineko lokalean)

Estatuko diru fondotik jasotako dirua:





**“Egitasmo asko daude
eta pena litzateke
horiek egin gabe uztea”**

Herritarren ahotik entzundakoa

Herritarrei egindako aurkezpenetan hirigintza arloak sortu zuen eztabaida haundiena. Berezi-ki, Txurrukengo errotondak izango duen egitura izan zen puntu eztabaidatuena lehenengo eguneko aurkezpenean. Lurralde Antolaketa eta Landa Garapeneko arloak ere izan zituen bere ekarpenak. “*Motordun ibilgailuen benetako debekua eta zigorra ezartzea*” eskatu zuen bertaratutako batek. Beste batek “*mendiko ibilbideak zaintzea*” ere eskatu zuen. Euskalteleko zuntz optikoak ere izan zuen bere aipamena, eta kiroldegi gainean tenisera jolasteko lekua egiteko eskatu zuen beste herritar batek.



Udal gobernu taldearen iritzia

Udal gobernu taldeak hurrengo urterako “*aurrekontu partehartzaileagoak*” egin nahi dituela azalduz eman zion hasiera aurkezpenari. “*Aurrekontuak egin aurretik herritarrekin bilduko gara*” ere esan zuten. Honetaz gain, arlokako asmo guztiak herritarrekin elkarlanian osatu nahi dituztela eta, jendea animatu nahi dute ekarpenak eta iritziak ematera. 🌀

Opizizioak aldiz, honako aipamenak egin ditu gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuen inguruan:

“Ez dogu gaizki ikusten aurrekontuen plana baina gure emendakinak sartzia biharrezkua irudi-tzen jaku, Udal aurrekontu osatuaguak egitteko”

Iker Aldazabal
EAJko bozeramailea

Uga ra xo




Uga ra xo Al bis tea



Oporetatik bueltatu ginenean, Olentzerok eta Mari Domingik utzitako jostailuak aurkitu genituen gelan. Ah! ze sorpresa atsegina! Oso gauza politak ekarri dizkigute: koloredun zapiak, magnetixa, panpinak janzteko jantziak... Denak pozik eta gustora jolasten dugu beraiek ekarritakoarekin. Formalak izaten jarraitu beharko dugu, ea datorren urtean ere horrela portatzen diren... 🧚





Zelan ospatzen ditzuzu?

Zertaz mozorrotuko zara iñuterixetan?



Lehenengo oholtza gainian egin bihar dogun dantzan lotiz jantziko naiz, lagunekin. Oso erreza da mozorro hau egittia, pijama bat eta txapela eramatia da eta. Panpin bat be eruaten dabe batzuk. Lagunekin dantzan eta goxokixak erosten ospatzen dot nik iñauterixak.



Seguruen animatzailez jantziko naiz, neskaz. Titixetan globo batzuk jarriko dittut eta peluka bat be eramango dot. Aurreko urtian holan jantzi nintzan eta asko gaustatu jatan. Dantzan eta jolasten ospatuko dot nik iñauterixak.

Ni deabruz jantziko naiz asko gustatzen jata eta mozorro hau. Nere lagunak txakurrez mozorrotu bihar dira baina neri ez jata asko gustatzen. Aurreko urtian deabruz be jantzi nintzan eta hiru neska izutu nittuan: aaaaaah!!



Ondiok ez dot pentsatu zertaz jantziko naizen. Aurreko urtian lotiz jantzi nintzan pijamiakin eta txapel batekin. Lagunak be holan jantzi ziran eta oso ondo pasatu genun. Iñauterixetatik gehixen gustatzen jatana kalera irten eta dantza egittia da.



TXISTEA ETA HIZKI SUPA

Aita semeari:

- Jorge Washington, zure adina zue-
nean, bere gelako jakintsuena zen.
- Bai -erantzuten dio semeak-. Eta
zure adina zuenean Estatu batue-
tako lehendakaria zen.



A	K	I	R	R	A	B	R	G	G
A	A	O	I	R	U	A	S	A	B
A	I	G	N	U	M	E	I	L	A
R	A	B	D	D	O	A	R	D	I
Z	A	L	L	A	A	A	I	A	D
O	E	M	R	E	B	R	M	K	E
E	R	R	O	G	I	A	R	A	B
B	A	R	A	K	A	L	D	O	B
O	K	Z	O	R	O	A	Z	A	A
A	B	B	E	B	R	A	K	B	A
O	B	U	L	B	L	I	D	A	M
O	B	E	A	R	O	R	B	R	Z

Bizkaiko herriak (12)

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Teknologiak aurrera egiten du gelditu gabe, egunetik egunera zerbait berria gizarteratuz. Internet dugu adibide garbia, web orrien sorrera etengabea izanik. Baina gizartea, ordea, ez doa horren azkar.

Zer moduz moldatzen zara teknologia berriekin? Erabiltzen ditzuzu?

MARI KARMEN ALONSO
Etxekoandrea



FERMINA ARRIOLA
Etxekoandrea



LUIS RIBERO
Langabetua



IÑAKI IÑARRA
Harakina




Eznaizez oso ondo moldatzen teknologia berriekin eta egia esan nere bizitza itteko ez dot bihar hauek erabiltzia. Ikasi ahal izango ginuan baina beste garai batian jaio ginan eta zaila da oin hauek erabiltzen ikastia.

Momentuz oso gaizki moldatzen naiz teknologia berriak dakan aparatuekin. Gustatuko jatan hauek erabiltzen ikastia baina denbora asko biharko neban eta eztakat.

Momentuz ez dot internet eta holakuak erabiltzen, ez jata tokatu eta hauek erabiltzia. Umia hazten danian iual jarriko naiz egunian eta egingo dot zeozer hauek erabiltzen ikasteko baina denbora biharko dot, beti zeoze berrixa dau eta.

Ez ditud teknologia berriak erabiltzen, ez jata tokatu eta hauek erabiltzia. Ikasteko asmua bai, badakat baina denborarik ez. Aurrerapenak beti dira gizartiak erabiltzeko baina bakoitzak ikusiko dau zer egin hauekin.

KOMIKIXA



Diseruiua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errral 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

II. San Blas opilen lehiaketa



Otsailaren 3an, Soralueko Udalak II. San Blas opilen lehiaketa antolatu du. Eguerdiko 12:30ean egingo da, Plaza Barrian. Lehiaketara norberak egindako opilak baino ezingo dira aurkeztu eta parte hartzaileek aurrez eman beharko dute izena Udaletxean edo **943 75 30 43** telefono zenbakian, otsailaren 2rako.

San Blasetako meza

Otsailaren 3an umeen mezetan egingo da San Blas opilen be-deinkapena, 12:15ean

Santa Ageda eguneko ekitaldiak



Santa Ageda bezperan, musika eskolakoak bandaren laguntzaz eta herriko txistulari, trikitilari, abesbatza eta ikasleekin kalejira egingo dute arratsaldeko 18:00etan. Santa Ana kaletik hasi eta Kalebarren, Plaza Zaharra, Gabolatz, Iturburuko zubia eta Gila zubia zeharkatu ondoren, Plaza Berrian amaituko dute. Santa Agedari buruzko ohiko abestiak kantatuko direla esan dute antolatzaileek.

Santa ageda eskera otsailaren 7an

Santa eskean baserriz baserri ibiltzeko eguna otsailaren 7a, zapatua, aukeratu dute aurten. Goizeko 8:30ean Plaza Berrian elkartuko dira eta auzoz auzo joango dira oinez. Koplariak eta trikitilariak izango dituzte lagun; Aitzol Barandiaran, Mikel Arrillaga eta Unai Gaztelumendi bertsolariekin. 🌀



PC-PREST
Informatika Zerbitzuak

PC konponketa guztiak,
instalazioak, erosketak...

660522366 Suar Aizpuru Soralue

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soralue
GIPUZKOA

Muguruza eta Jauregi San Anton Pilota Torneoko irabazleak



San Anton Pilota Torneoa finala jokatu zen hilaren 16an Elgoibarko Ikastolan. Atxotegi plaentxiarrak eta atzelari elgoibartarrak 12 eta 22 galdu zuten Muguruza eta Jauregiaren aurka.

Indarrak parez-pare

Norgehiagoka bostnakako berdinketarekin hasi bazen ere, Muguruza eta Jauregi bikotea Lagunak taldeko bikotea baino gehiago izan zen. Jauregi gainera, jokatuako partida eta txapelketengaitik, finaleko jokalaririk onena aukeratu zuten. 🍀

Xala eta Laskurainek 22 eta 21 galdu zuten

Hilaren 26an Beotibar frontoian jokatuako partidaren Olaizola I. eta Patxi Ruizek 22 eta 21 irabazi zuten Xala eta Laskurain bikotearen aurka. Binakako txapelketan laugarren nor-

gehiagoka izan da hau eta hurrengo, Eibarko Astelena frontoian joatuko dute, otsailaren lehen. Aurkariak, Bengoetxea VI.na eta Beloki izango dira. 🍀

EMAITZAK

FUTBOLA

Sora (Erreg. N.) - Alerru	2-3
Martutene - Sora (Erreg.M.)	1-2
Sora (Jub) - Eibartarrak	2-5
Bergara - Sora (Jub)	2-0
Sora (Kad) - Aloña Mendi	2-0

PELOTA

Renobales-Galarraga	22
Mendizabal-Jauregi	11
Berasaluz VIII-Begino	22
Xala-Laskurain	17
Olaizola I-Patxi Ruiz	22
Xala-Laskurain	21

AGENDA

FUTBOLA

Domeka 1, 15:45etan Ezozin
Sora (Errg.N.)-Lagunak
Zapatua 31, 15:30ean Plazetan
Allerru-Sora (Errg.M)
Zapatua 31, 15:45ean Ezozin
Sora(Jub)-Ikasberri
Zapatua 31, 11:00etan Ezozin
Sora (Kad)-Bergara

PELOTA

Domeka 1, Eibarren
Bengoetxea VI-Beloki
Xala-Laskurain

Zapatua 7, Tafallan
Olaizola II-Mendizabal II
Xala-Laskurain

ARRANO
taberna
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

**JABIER ALBERDI
HARATEGIA**
ERRABAL KALEA 24
SORALUZE
T. 943 75 19 32
EUSKO LABEL
Euskal Okela

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIBA
Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: J.M. Berrueta

SAN BLAS EGUNA ELURPEAN

Argazki hau 1962ko otsailan 3an aterata dau, San Blas egun edurtu batian oin dala 47 urte. Katarruari aurre egitteko San Blas opilak bedeinkatzia eta ostian argazkixa ateratzia aspal-ditik datorren ohiturria da.

Ezkerretik eskumara:

Olimpia Vidal, Juan Manuel Berrueta, Jesus Mari Berrueta, Arantza Berrueta, Serapia Bergaretxe, Ezosi Perez de Labeaga eta Mariasen Berrueta.



Oroigarriak, eskelak, eskertzak...

Bidali aldizkaria@pilpilean.com helbidera
edo deitu 943 75 13 04 zenbakira